

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Landarte Nafarroako landa ingurunean arte garaikidea bultzatzeko programa eragile gisa indartu da bigarren edizioan

*15 herrik parte hartu dute aurten Arte eta Landartasun programan*

Osteguna, 2018.eko urriak 18

Landarteren bigarren edizioak arte garaikidea Nafarroako landa ingurunera hurbiltzeko erreferente gisa indartu du Arte eta Landartasun programa. 1.500 biztanle baino gutxiago dituzten 15 herritako 600 lagun inguruk era aktiboan parte hartu dute tailer eta aurkezpen artistikoetan, diziplina



Manu Topic-ekin egindako lana, Ezkarozen

bakoitzeko erreferentziatzeko artisten zuzendaritzapean. Gainera, 2.500 pertsona inguru bildu dira bukaerako ekitaldietan, Nafarroako beste eskualde batzuetatik eta inguruko autonomia-erkidegoetataik etorritako bisitariekin batera.

Ekimenean parte hartu duten herriek kulturaren inguruko baterako proiektuaren inguruan bildu ahal izan dituzte tokian tokiko bizilagunak, eta ordainetan, kultura-ondare materiala lortu dute, haiek sortu eta haiexen komunitateei atxikita gelditu diren artelanei esker, baita kultura-ondare immateriala ere, proiektu bakoitzean historia eta ohituren sustraian sakondu behar izan baitute artistekin batera, ondarearen balioa aintzakotzat hartuz eta horri buruzko kontzientzia kolektiboa areagotuz.

### Landarte 2018

Urriaren 6an, Sesman, bukaera eman zitzaion Con sólo una gota de agua obraren aurkezpenarekin, maiatzetik urrira bitartean garatuz joan den aurtengo programari. Proiektuak bi fasetan landu dira: tailerretan, zeinetan artistek eta herritarrek artelanak taxutu dituzten, eta proiektuen bukaerako aurkezpenetan.

Lurra izan da bigarren edizio honen ardatz nagusia: harriak, arroak, zelaiak, mendiak, landareak, etab. Tailer guztietan, kontuan hartu dira erabilitako elementuen iraunkortasuna eta ingurunearekin bat egiteko gaitasuna.

Landarte artea eta paisaia uztartzen dituen “Land Art” deritzon arte garaikidearen korrontean inspiratzen da, baina harantzago jotzeko xedez, artista egoiliarren aholkularitza eta zuzendaritzapean eta hainbat diziplina artistiko bilduz landutako jardueren sorreran, kudeaketan, ekoizpenean, marketinean eta jarraipenean tokian tokiko bizilagunak inplikatur.

2018an, Nafarroako osoko 15 herri parte hartu dute: Uharte Arakil, Orbaibar, Eugi, Aurizberri, Ezkaroze, Petilla de Aragon, Eslava, Monteagudo, Artaxoa, Mañeru, Iguzkitza-Azketa, Sartaguda, Galipentzo, Zuñiga eta Sesma. Azken hiru herri hauek jarraipena eman diete Landarteren aurreko edizioan izarren, muralismoaren eta espartzuaren gainean landu zituzten esperientziei. Arte garaikideko bilduma bat duen Bodega Otazu upategiak ere edizio honetan parte hartu du Carlos Olló idazlearekin antolatutako topaketa literario baten bitartez.

Bigarren edizio honek Nafarroako Gobernu Museoen Zerbitzua eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua izan ditu lankide eta bidelagun.

Landarte 2019ko hitzordua prestatzen hasia da. Hirugarren edizioan, Nafarroako Arte eta Landatartasun Programak jarduera artistiko berriak abiaraziko ditu hainbat herritan. Oraingo edizioan bezalaxe, zenbait herri esperientzia errepikatu eta jarraipena emango diete berrien proiektu artistikoei, eta honek eboluzionatzeko aukera emango die proiektuei, herrien ongizate sozial eta ekonomikoaren mesedetan.

## Galería de fotos



Mural realizado en Petilla con Jabier Landa.



Azketako tuneleko instalazio birtuala, Martin Etxauri Txo!?!? artistarekin batera garatutakoa.